

EZAGUT DITZAGUN LAN- ETA HEZKUNTZA-ARLOAK!

GIZARTERATZEA GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOA

ITZIAR UNDIANO KORTA

2017/2018 ikasturtea

R400 ikastaroa

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. IRAKASLEAREN FITXA	4
2.1. Azalpenak	
2.1.1. Hurbilpen-fasea	5
2.1.2. Garapen-fasea	6
2.2. Erronkaren jarduera-taula	12
3. BIBLIOGRAFIA	17
4. ERANSKINAK	18
1. eranskina	18
2. eranskina	21
3. eranskina	23
4. eranskina	25
5. eranskina	26
6. eranskina	28
7. eranskina	30
8. eranskina	37
9. eranskina	38
10. eranskina	40
11. eranskina	41
12. eranskina	42
13. eranskina	43
14. eranskina	44
15. eranskina	45
16. eranskina	46
17. eranskina	47
18. eranskina	53

1. SARRERA

Gaur egungo gizartea abiada bizian aldatzen ari da, eta orain arte behintzat, hezkuntza-sistemak ez du jakin aldaketa horrek ekarri dituen behar berriei egokitzen. Hezkuntza-sistemak, nagusiki, informazioa emateko funtzioa izan du, beste ezer baino gehiago. Hori aldatu behar du, teknologia-aurrerapenen ondoriozko beharrei eta ikasle-profil berriei erantzungo badie.

Ikasleek eskura dute nahi duten informazio guztia; ikastetxeek, berriz, sarean topatu ezin den hori eskaini behar diete. Ikasleak gaitasunetan hezi beharko dira, eta ez ezagutzetan, oraindik errealitate ezezagun bati aurre egiteko prest egon daitezten.

Hezkuntza-eredu berri horretan konpetentzia espezifikoa eta orokorrek hartzen dute protagonismoa, eta horiek lortzekotan, gelako metodologia aldatu behar da ezinbestean.

Erronken metodologiak jarduera-aldaketa dakar ikasgelan, eta baita irakasleen eta ikasleen rola ere. Etengabe ekipoan arituz hezkuntza kooperatiboaren ardatzak lantzen dira: helburu komuna, elkarren mendekotasun positiboa, banakoaren erantzukizuna eta aurrez aurreko komunikazioa. Ikasleek testuinguru errealetik ahalik eta gertuen dagoen egoera bati erantzun behar diote, ikasteko prozesuaren protagonista aktibo bilakatuz. Irakaslearen rola, metodologia berri honetan, taldeen laguntzaile izatea da; hau da, ikasteko prozesua gidatu, eta hori erraztuko duten baliabideak eskainiko dituen formatzailea izango da. Ikasleen jakin-nahia piztuko duten erronkak planteatu beharko dituzte irakasle-ekipoek, eta prozesua egokia dela bermatzeko behar adinako *feedback*a eskaini beharko dute.

Lan hau erronken metodologian oinarrituta dago, eta Gizarteratzea goi-mailako heziketa-zikloko bi modulu lantzen dira: Gizarteratzea eta laneratzea (aurrerantzean, INO) eta Hezkuntzan esku-hartzeko laguntza (aurrerantzean, HPB). *Ezagut ditzagun lan- eta hezkuntza-arloak!* izena du erronka honek. Zergatik?

Lan- eta hezkuntza-arloan esku-hartzeak eskatzen dituen oinarritzko ezagutzak lantzen dira erronka honetan; horri esker, ikasleak gizarte-arloan kokatuko dira. Haien jardunaren esparrua zer den, eta zerk eta nor ezaugarritzen duten jakin behar dute, gero egingo dituzten esku-hartzeetan sakontzen hasi aurretik.

OCDren (Oinarritzko Curriculum-Diseinuaren) arabera, gizarteratze-teknikariak gai izan behar du bi eremu horietan lege-esparrua identifikatu eta aplikatzeko; lehen jarduerak, beraz, arlo hori lantzerantz bideratuta daude. Jarraian, gizarteratze-teknikariaren profila ezagutzeko jarduerak planifikatu dira. Kolektiboak eta horien ezaugarri orokorrak ezagutzea da hurrengo pausoa, haiekin lan egiteko baliabide eta tresnak ezagutu aurretik. Azkenik, bildutako informazio guztia ondo erabili beharko dute proposatzen zaizkien kasuak egoki ebazteko.

Lanaren lehen orrialdeetan erronkaren deskribapena egiten da, landuko diren moduluen helburuekin eta amaierako gaitasunekin. Segidan, irakaslearen fitxa dago; bertan, erronka arrakastaz aurrera eramateko jardueren deskribapena eta irakasleentzako oharrak aurkezten dira. Erronkaren jarduera-taulan deskribapena, iraupena, baliabideak eta taldekatze motak zehazten dira. Azkenik, eranskinen atalean, jarduerak egiteko fitxak atxikitzen dira.

2. IRAKASLEAREN FITXA

Erronka hezkuntza kooperatiboaren lau ardatzen arabera diseinatua dago: helburu komuna, elkarren mendekotasun positiboa, banakoaren erantzukizuna eta aurrez aurreko komunikazioa. Ikasleek erronkan zehar egin behar dituzten jardueretan, trebetasun horiek modu inplizituan lantzen dira.

Irakasleok, gelan egingo dituzten taldelanen jarraipenarekin eta orientabideekin, ikasleek konpetentzia orokorrak lantzen dituztela bermatu beharko duzue; horregatik, eduki espezifikoa eskuratzen bezainbesteko arreta jarri beharko duzue konpetentzia orokorrak eskuratzen.

Fitxan, besteak beste, honako hauek aurkituko dituzue: *Ezagut ditzagun lan- eta hezkuntza-arloak!* izeneko erronka arrakastaz aurrera eramateko eman beharreko pausoak, erabili beharreko taldekatzeak eta jardueren iraupena. Gomendioak dira soilik; izan ere, irakasleok erronka zuen beharretara egokitzeko aukera zabalik duzue.

Erronkan hiru fase bereizten dira: hurbilpen-fasea, garapen-fasea eta aplikazio-fasea. Materialean, lehen bi faseetan lantzeko edukiak dituzue eskuragarri. Hurbilpen-faseak ikasleek erronkan zehar landuko dituzten eduki espezifikoetara hurbiltzeko jarduerak biltzen ditu; garapen-faseak, berriz, ikasleek egin beharko dituzten jarduerak. Aplikazio-fasea da azkena; une horretan, ikasleek eskuratu dituzten edukiak transferitu edo erabili beharko dituzte egoera bati erantzuteko. Aplikazio-fasea nolakoa izango den irakasleok definituko duzue, bakoitzaren ebaluazio-sistemara hobekien egokitu dadin.

Hiru taldekatze mota erabiliko dira, erronka osoan zehar berberak izango direnak. Alde batetik, gela osoari zuzendutako jarduerak egongo dira. Bestetik, oinarrizko taldeak sortuko dituzue, hiru kidek osatuak. Azkenik, oinarrizko talde horiekin beste bi multzo nagusi osatuko dira, erronkak barne hartzen dituen modulu bakoitzeko talde bat.

2.1. Azalpenak

2.1.1. Hurbilpen-fasea

J0. Fitxa aurkeztea (60 min)

Irakasleok taldeari esku artean izango duzuen erronka aurkeztuko diozue; horretarako, aurkezpen-fitxa erabil dezakezue (ikus 1. eranskina). Garrantzitsua da ikasleek garbi edukitzea zer modulu eta zer amaierako gaitasun landuko diren, baita zer ebaluazio-irizpide izango diren ere.

J1. Motibazio-saioak: filmak ikustea (120 min)

Une honetatik aurrera, gela osoa bi taldetan banatuko da. Oinarrizko taldeen erdiek A taldea osatuko dute, eta hezkuntza-arloa landuko dute. Gainerakoek –hau da, B taldeak– gizarteratze-modulua landuko dute.

A taldeak *Detrás de la pizarra* filma ikusiko du (HPB moduluko edukiei dagokie); B taldeak, berriz, *Los lunes al sol* (INO moduluko edukiei dagokie).

J2. Filmak lantzeko galderei erantzutea (75 min)

J2.1. Ikasleek J2 fitxan agertzen diren galderei erantzungo diete (ikus 2. eranskina). Galderei erantzuteko, ikasleak oinarrizko taldeetan egongo dira.

J2.2. Film bera ikusi duten oinarrizko taldeek beren artean erantzunak komentatu, eta adostuko dituzte.

J3. Filmen iruzkinak egitea (90 min)

J3.1. Ikasleek ikusi duten filmaren iruzkina egingo dute; horretarako, J3.1 fitxan dituzten galderak lagungarri izango dituzte (ikus 3. eranskina). Jarduera egiteko, oinarrizko taldeak filma ikusi duten taldeetan elkartuko dira (A eta B taldeak).

J3.2. A eta B taldeek filmen iruzkinak eta galderei emandako erantzunak trukatu dituzte beste taldearekin. Talde bakoitzak erabakiko du nork eta nola egingo duen aurkezpena.

Oharra:

Erronkaren edukia lantzean, irakasleok ziurtatu beharko duzue arreta berezia jartzen dela arlo garrantzitsuetan. Har ezazue kontuan helburua jakin-nahia sustatzea dela, eta ez erantzunak aurreratzen joatea.

J4. Haikua (15 min)

Haikua jatorri japoniarra duen olerki mota bat da. Jardueraren helburua talde bakoitzak erronka ezagututakoan zer sentitzen duen adieraztea da; alegia, betebeharra bere barne-munduarekin lotzea (ikus 4. eranskina).

Oinarrizko talde bakoitzak bere *haikua* osatuko du, eta gelan irakurriko dira. Jarduerak irakasleoi informazio handia eskaintzen dizue gelak erronkari aurre egiteko garaian duen gogo-aldarte eta motibazioaren inguruan; informazioak zuen jarduteko era alda dezake.

2.1.2. Garapen-fasea

J5. Sarrerako edukiak lantzea (690 min)

Jarduera honekin garapen-faseari hasiera ematen zaio. Erronkan topatuko duzuen faserik luzeena da, eta aditu taldeen bidez eramango duzue aurrera. Gela A eta B taldeetan banatuko duzue, eta talde bakoitzak INO edo HPB moduluko galderei erantzungo die; hain zuzen, ikusi duten filmean landu ez duten arloko galderei. Adibidez, A taldea INO moduluko filmean aditua izan bada, edukiak lantzean HPB moduluan izango da aditua (ikus 5. eta 6. eranskinak).

J5.1. Ikasleek egokitu zaizkien galderei erantzungo diete. Ikasleek aditu taldeetan lan egingo dute: oinarrizko talde bakoitzeko kide bakoitzak lanaren galdera multzo bat landuko du, eta atal bera duten oinarrizko beste taldeetako kideekin osatuko dute talde berria.

Oharra:

Irakasleok banatuko dituzue galderak eta oinarrizko taldeen kideak adina galdera multzo izango dira. Garrantzitsua da galdera multzoei erantzuteko osatzen diren talde berrietako kideek informazioa ondo lantzea, eta ulertzea, gero bere oinarrizko taldekideei azaldu beharko baitiete; hau da, haiek izango dira gaian adituak.

J5.2. Ikasleek aditu taldeetan bildu duten informazioa azalduko dute oinarrizko taldeetan, eta hobekuntzak egingo dituzte. Hau da, taldekideen zalantzei erantzuteko

informazioa txertatu edo argituko dute beren txostenetan, kide guztiek galdera multzo desberdinei buruzko informazioa argi izan dezaten.

J5.3. A eta B taldeek –hau da, INO eta HPB moduluetako gaiak landu dituzten oinarritzko taldeek– elkarrekin informazioa trukatu, eta adostasuna lortu beharko dute gaiaren inguruko txostena osatzeko (ikus 7. eranskina). Jardueraren amaieran, bi txosten izan behar dituzte: A taldeak INO moduluko txostena, eta B taldeak HPB moduluko.

Oharra:

Txostena adosten duten unean, irakasleok erantzunak egokiak direla eta ezagutza minimoak txostenen daudela bermatu beharko duzue. Aurkezpenak egin aurretik, sortu diren txostenen kalitatea ziurtatzea ezinbestekoa da.

J5.4. Txostena osatu ostean, ikasleek aurkezpen-gidoia adostu beharko dute. Haiek erabakiko dute nola aurkeztu nahi duten edukia; baldintza bakarra, ikaskideei informazioa garbi ematea da.

J5.5. Ikasleek aurkezpena prestatuko dute. Gogoan izan ezazue ikasleak direla gaian adituak, eta haiena dela gelakideei informazio guztia emateko ardura.

J5.6. Ikasleek INO eta HPB moduluetako txostenak aurkeztuko dituzte talde osoaren aurrean. Aurretik egin duten bezala, ikasleek erabakiko dute nork egingo duen aurkezpena.

Oharra:

Gomendagarria da aurkezpen-unerako, ikasle bakoitzak txosten guztien kopia bat eskuetan izatea; horrela, aukera izango dute aurkezpen guztietan egiten diren aipamenak azpimarratzeko eta azalpenak gehitzeko.

Era berean, irakasleok aurkezpen-unean behar diren zehaztapenak egingo dituzue, informazio esanguratsuenaz azpimarratuz eta ikasleen arreta eduki garrantzitsuenetara zuzenduz.

J5.7. INO eta HPB moduluetako ikasleek txosten bakar bat osatuko dute, eta hori da irakasleoi helaraziko dizuetena.

J5.8. Ikasleek ordura arte landutakoaren kontzeptu-mapa egingo dute. Formatu digitalean edo paperezkoan, bi arloetako kontzeptu nagusiak elkarren artean lotu, eta zer ulertu duten irudikatuko dute.

J6. Word coffee dinamika gauzatzea

Talde osoa bilduko da, eta ikasleek gizarteratze-teknikariaren profilaz hitz egingo dute era antolatuan eta giro informalean (ikus 8. eranskina).

Oharra:

Garrantzitsua da dinamikaren amaieran irakasleok ondorio nagusiak nabarmendu eta falta den informazioa gehitzea.

J7. «Gizarteratze-teknikaria... balitz?» ariketa egitea

Ikasleek gizarteratze-teknikariaren trebetasun pertsonalen inguruan eztabaidatuko dute ariketa baten bidez (ikus 9. eranskina). Ariketaren helburua da gizarteratze-teknikariaren profila osatzen duten trebetasun garrantzitsuetara iristea. Horretarako, zuzenean trebetasunen inguruan galdetu beharrean, pentsamendu intuitiboagoa erabiliko da.

Oharra:

Bi ariketa-eredu daude. Irakasleok erabili nahi duzuen denboraren arabera, ariketa bat edo biak egin ditzakezue; bi eginez gero, informazio gehiago lortuko duzue profilaz. Ariketa talde osoan egitea proposatzen da; behar edo nahien arabera, ordea, oinarrizko taldeetan edo bikoteka egin daiteke.

J8. Gautenara joatea

Gomendagarria da hezkuntza-premia berezien arloan sakontzeko, halako beharrak dituzten ikasleen profila gertutik ezagutzea; horretarako, lagungarria izan daiteke Gautenako gela egonkorretara eta egoitzara bisitan joatea.

Oharra:

Bisita egin nahi izanez gero, aurretik Gautenako arduradunen batekin kontaktua egingo duzue.

J9. Kolektiboak aztertzea

Jardueraren bitartez, ikasleek lan-munduratzeko eta hezkuntza-premia berezien arloan topatuko dituzten kolektiboak eta horien ezaugarriak aztertuko dituzte.

J9.1. Objektuaren analisia (INO eta HPB moduluak): Ikasleek egokitu zaizkien kolektiboak aztertuko dituzte. Jarduera egiteko, berriz ere, A eta B taldeek arlo zehatz bat landuko dute. A taldea osatzen duten oinarrizko talde bakoitzak HPB moduluko fitxa osatuko du (ikus 10. eranskina); B taldea osatzen dutenek, aldiz, INO moduluko fitxako galderari erantzun beharko diete (ikus 11. eranskina).

J9.2. *Instatwitter*: Ikasleek hitzez eta irudiz agertuko dute egokitutako kolektiboen gaineko informazioa (ikus 12. eranskina). Jarduera horrekin ikasleek informazio nagusia laburbiltzea eta grafiko batean islatzea lortu nahi da, aurreko informazioa landu eta ulertu dutela bermatzeko. Oinarrizko taldeek *instatwitter* bana osatuko dute.

J9.3. Azkenik, oinarrizko talde bakoitzak lana aurkeztuko die gelakideei. Bozketa egingo da, eta guztien artean erakargarriena eta informazioa ongien azaltzen duena hautatuko da.

Oharra:

Irakasleok kolektiboen inguruan ematen den informazioa egokia eta nahikoa dela ziurtatu beharko duzue, hori izango baita arlo hori landu ez duten taldekideek jasoko duten informazioa.

J10. Udalmapa eta lan-politikak aztertzea (INO modulukoek) eta Berritzeguneak eta Norbanako Curriculum-Egokitzapenak aztertzea (HPB modulukoek)

Lan- eta hezkuntza-eremuen ezagutzan sakontzeko, ikasleek askotariko baliabideak aztertuko dituzte oinarrizko taldeetan, eta aurreko jardueran egokitu zaizkien eremuen inguruan. 2 fitxa osatu beharko dituzte, eta azken unean informazioa osatuko dute.

J10.1. INO modulua lantzen ari den oinarrizko talde bakoitzak *Udalmapen* eta *Behagiren* webguneetan egokitu zaion eskualdearen inguruko informazioa bilduko du (ikus 13. eranskina). HPB moduluko informazioa bilatu behar duten oinarrizko taldeak berritzeguneetan adituak izango dira, horiei buruzko galderari erantzun ondoren (ikus 14. eranskina).

J10.2. Jardueraren bitartez, INO modulua aztertu duten ikasleek lan-politiken inguruko informazioa bilduko dute (ikus 15. eranskina); HPB modulua landu duten ikasleek, berriz, Norbanako Curriculum-Egokitzapenak aztertuko dituzte (ikus 16. eranskina).

J10.3. Bateratzea: INO eta HPB moduluak egin dituzten taldeek beren artean informazioa osatuko dute. Hori egindakoan, lan- eta hezkuntza-eremuko txosten bana izango dute, eta aurretik osatua duten txosten orokorrari erantsi beharko diete (bai 9. jarduerako, bai 10. jarduerako edukiak eta lanak).

Oharra:

Informazioa txostenean txertatu aurretik, irakasleok informazio nahikoa eta zuzena dutela ziurtatu beharko duzue. Gogoan izan behar duzue hori izango dela ikasleek izango duten materiala, eta prozesu osoan *feedbacka* ematea irakasle-ekipoaren lana dela.

J10.4. Berritzegunearen hitzaldia: Berritzeguneko aditu bat gelara ekartzea gomendatzen da, aurretik berritzeguneeen inguruan bildutako informazioa osatzeko eta zalantzak argitzeko. Horrela lortutako informazioaren kalitatea askoz hobea da. Ikasleek, bildutako informazioarekin kontrastatuta, aukera izango dute ezagutzak areagotzeko.

J11. Kasuak lantzea

Erronkaren hasieratik bildutako informazio guztiarekin egindako txostena eskuetan, informazioa egoera errealean erabiltzeko unea iritsiko zaie ikasleei. Kasuak lantzearen bidez, informazioa erabiliko dute, eta, aldi berean, ezagutzak barneratuko dituzte (ikus 17. eta 18. eranskinak).

J11.1. Ikasleek horrelako kasu bat ebatziko duten lehen aldia izanik, hasieran beharrezkoa da irakasleek beraiekin gelan kasu bat ebatzea. Egokiena izango litzateke haiek bildu duten informazioa erabiliz, ebatzitako kasu bat aurkeztea; irakasleok ikusiko duzue zer estilo duzuen gustuko.

J11.2. Irakasleen azalpenak entzun ondoren, ikasleak 9. eta 10. jardueretan landu duten eremuaren inguruko kasuak lantzen trebatuko dira lehenik.

Oharra:

Gomendagarria da lehenik kasuak bakarka ebatzen saiatzea, eta gero oinarrizko taldean edo nahi duten kideekin konparaketak egitea. Eremu bakoitzeko kasu guztiak egiteko denborarik ez dute izango jardueran; aurrerago, kasuak sakonago lantzeko unea izango dute, eta orduan landuko dituzte adituak diren eremuko kasu gehiago, baita adituak ez diren eremukoak ere.

J12. Informazioa trukatzeko

Oraindik ikasle guztiek ez dute lan- eta hezkuntza-arloetako informazioa; une honetan trukatzeko dute informazioa.

J12.1. Ikasleek INO moduluko informazioa azalduko diete kideei. Ordubetan izango dute aurkezpena prestatzeko, eta beste ordubetan informazioa gelan azaltzeko.

J12.2. Ikasleek HPB moduluko informazioa azalduko diete kideei. Ordubete izango dute aurkezpena prestatzeko, eta beste ordubete informazioa gelan azaltzeko.

Oharra:

Beste informazio-trukaketetan bezala, irakasleok behar diren azalpenak emango dituzue aurkezpenetan, ikasleek eman eta jasotzen duten informazioa egokia dela bermatzeko.

J13. Kasuak sakonago lantzea

Ikasleek kasu gehiago landuko dituzte: aditu diren eremukoak eta aditu ez direnekoak, azken horiek lehen aldiz (ikus 17. eta 18. eranskinak). Ikaskideen artean elkarri laguntzeko aukera dute, eta irakasleok zuzenketak egin beharko dituzue prozesua egoki barneratzen dutela eta informazioa ongi erabiltzen dutela ziurtatzeko.

2.2. Irakaslearen fitxa: erronkaren jarduera-taula

FASEA	JARDUERA	DESKRIBAPENA	IRAUPENA	BALIABIDEAK	TALDEKATZEA
HURBILPEN-FASEA	J0. Fitxa aurkeztea	Irakasleok taldeari aurrean duzuen erronka aurkeztuko diozue.	60 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
	J1. Motibatzekeo filmak ikustea	Ikasleek <i>Los lunes al sol</i> eta <i>Detrás de la pizarra</i> filmak ikusiko dituzte.	120 min	2 gela, 2 kanoi eta 2 ordenagailu	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
	J2. Filmak lantzeko galderei erantzutea	Ikasleek J1 fitxan agertzen diren galderei erantzungo diete oinarrizko taldeetan.	45 min	ikasleen koadernoak	oinarrizko taldeak
		Film bera ikusi duten taldeek erantzunak komentatu, eta adostuko dituzte.	30 min	ikasleen koadernoak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
	J3. Filmen iruzkinak egitea	J3.1. Ikasleek ikusi duten filmaren iruzkina egingo dute.	30 min	ikasleen koadernoak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
		J3.2. Ikasleek filmen inguruko gaiak trukatu dituzte.	60 min	galdetegiak	talde osoa
	J4. <i>Haikua</i> egitea (hautazkoa)	Ikasleek erronkaren inguruko <i>haikua</i> egin, eta gelan irakurriko	15 min	ikasleen koadernoak	oinarrizko taldeak eta talde

		dute.			osoa
			360 min		
GARAPEN-FASEA	J5. Sarrerako edukiak lantzea	J5.1. Ikasleek egokitutako fitxaren galderei erantzungo diete.	180 min	ordenagailuak	aditu taldeak
		J5.2. Ikasleek bildutako informazioa azalduko dute oinarrizko taldean eta hobekuntzak egingo dituzte.	120 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak
		J5.3. INO eta HPB moduluetakoa gaiak landu dituzten ikasleen artean informazioa trukatu, eta adostasuna lortuko dute.	60 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
		J5.4. Ikasleek aurkezpen-gidoi adostua osatuko dute.	15 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
		J5.5. Ikasleek aurkezpena prestatuko dute.	45 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
		J5.6. Ikasleek INO eta HPB moduluetakoa txostenak aurkeztuko dituzte.	120 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa

		J5.7. ikasleek bi eremuen artean txosten bakar bat osatuko dute.	30 min	ordenagailuak	talde osoa
		J5.8. Ikasleek orain arte landutakoaren kontzeptu-mapa egingo dute.	120 min	ordenagailuak edota kartoi meheak eta errotulagailuak	oinarrizko taldeak
	J6. <i>Word coffee</i> dinamika gauzatzea	Ikasleek gizarteratze-teknikariaren profilaren inguruan hitz egingo dute, era antolatu batean.	60 min	kafea, pastak eta gela zabal bat mahai eta aukiekin	talde osoa
	J7. «Gizarteratze-teknikaria... balitz?» ariketa egitea	Ikasleek gizarteratze-teknikariaren trebetasun pertsonalen inguruan eztabaidatuko dute.	30 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
	J8. Gautenara joatea	Gautenara bisita antolatuko da.	240 min	GAUTENAKo kontaktua eta garraioa	talde osoa
	J9. Kolektiboak aztertzea	J9.1. Objektuaren analisisa. Ikasleek egokitu zaizkien kolektiboak aztertuko dituzte.	120 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
		J9.2. <i>Instatwitter</i> . Ikasleek egokitutako kolektiboen gaineko informazioa hitzez eta irudiz agertuko dute.	120 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta

		J9.3. Ikasleek egindako <i>instatwittera</i> aurkeztuko diete kideei eta gustukoena aukeratuko dute.	120 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
	J10. <i>Udalmap</i> eta lan-politikak aztertzea (INO modulukoek) eta Berritzeguneak eta NCE aztertzea (HPB modulukoek)	J10.1. INO moduluko ikasleek <i>Udalmapen</i> eta <i>Behagiren</i> webguneetan informazioa bilduko dute. HPB moduluko ikasleek berritzeguneei buruzko informazioa bilduko dute.	180 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta
J10.2. INO moduluko ikasleek lan-politiken inguruko informazioa bilduko dute. HPB moduluko ikasleek NCE-en inguruko informazioa bilduko dute.		180 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta	
J10.3. Bateratzea: INO eta HPB moduluak egin dituzten taldeek beren artean informazioa osatuko dute.		120 min	ordenagailuak	oinarrizko taldeak, bitan banatuta	
J10.4. Berritzegunearen hitzaldia.		60 min	Berritzeguneko kontaktua, kanoia eta ordenagailua	talde osoa	

	J11. Kasuak lantzea	J11.1. Irakasleok ikasleei kasuak nola ebatzi azalduko diezue.	60 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
		J11.2. Ikasleak landu duten eremuaren inguruko kasuak lantzen trebatuko dira.	120 min	ordenagailuak, orriak eta bolalumak	oinarrizko taldeak
	J12. Informazioa trukitzea	J12.1. Ikasleek INO moduluko informazioa azalduko diete kideei.	120 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
		J12.2. Ikasleek HPB moduluko informazioa azalduko diete kideei.	120 min	kanoia eta ordenagailua	talde osoa
	J13. Kasuak sakonago lantzea	Ikasleek kasu gehiago landuko dituzte.	540 min	ordenagailuak, orriak eta bolalumak	oinarrizko taldeak eta bakarka
			2880 min		

3. BIBLIOGRAFIA

APA: "Normas APA", [<http://normasapa.net/2017-edicion-6/>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

AZURMENDI, Joxe: *Historia, arraza, nazioa*, Elkar, Donostia, 2014.

BEHAGI: "Gipuzkoako gizarte behatokia", Gipuzkoako Foru Aldundia, [<http://www.behagi.eus/>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

BISQUERRA, Rafael: *Educación emocional y bienestar*, Wolters Kluwer España, S.A, Madrid, 2008.

BLECKNER, JEFF: *Detrás de la pizarra* (DVD), Anchor Bay Entertainment, 2011.

EUSKAL HERRIKO AGINTARITZA ALDIZKARIA: AGINDUA, 2016ko uztailaren 8koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, 2016-2017 ikasturtean Eskolatze Osagarriko Programak garatzeko laguntzetarako deia egiten duena, Hezkuntza, Hizkuntza, Politika eta Kultura Saila, [<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/09/1603960e.shtml>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

HEZKUNTZA SAILA: "Araudia", Eusko Jaurlaritzak, [<http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzak/hezkuntza-saila/>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

HEZKUNTZA SAILA: "Berritzeguneak", Eusko Jaurlaritzak, [<http://www.berritzeguneak.net/>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

IVAC-KEI: *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Gizarteratzeko goi mailako teknikaria, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Euskal Institutua*, [[https://ivac-eei.eus/upload/cf/documentos/121/ssc ts int soc dcb e.pdf](https://ivac-eei.eus/upload/cf/documentos/121/ssc%20ts%20int%20soc%20dcb%20e.pdf)]; [Kontsulta: 2017/12/18]

JAUREGI, A: "Airean, lurrian eta bihotzean" in *Oilategitik*, 17 (2017), 16-19.

LEÓN DE ARANOA, FERNANDO: *Los lunes al sol* (DVD), Manga Films, 2003.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA: "Erreferentzia bibliografikoak eta bibliografia nola osatu", Biblioteka-ikaskuntza eta ikerkuntzarako baliabide zentroa, [<http://www.mondragon.edu/eu/biblioteka/nola-bilatu/bibliografia-nola-osatu-1>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

UDALMAP: "Ekonomia", Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Saila, [<http://www.euskadi.eus/udal-adierazleak/web01-a2ogaeko/eu/>]; [Kontsulta: 2017/12/18]

WARNOCK, H.M.: *Special educational needs*, Her Majesty's stationery office, London, 1978.

ZENBAITEN ARTEAN: *Apoyo a la intervención educativa*, Altamar-Euskalgintza, 2015.

ZENBAITEN ARTEAN: *Inserción sociolaboral*, Altamar, Bartzelona, 2013.

4. ERANSKINAK

1. ERANSKINA

JO. AURKEZPEN-FITXA

EZAGUT DITZAGUN LAN- ETA HEZKUNTZA-ARLOAK!

HEZKUNTZAREN ETA LANERATZEAREN LEGE-ESPARRUA

METODOA: KASUAK

(Gizarteratzea goi-mailako heziketa-zikloko 2. maila)

KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA:

AK1¹: Behar den aurretiko informazioa aukeratu eta kudeatuz, plangintza ezarri eta gizarte-proiektuak abiarazteko eta gidatzeko gai da, eta dokumentazioa kudeatzeko behar dituen IKTak erabiltzen ditu.

AG1²: *Gizarteratzearen eta laneratzearen testuingurua zehazten du eta lege-esparrua eta eskuragarri dauden baliabideak aztertzen ditu.*

AG2: *Laneratzeako esku-hartzea planifikatzen du eta ekintza hori zuzentzen zaien pertsonen premiak identifikatzen ditu.*

HEZKUNTZA-LAGUNTZA:

AK2: Erabiltzaileen ezaugarriak eta beharrak aztertu eta identifikatzeko gai da.

AG1: *Hezkuntzako parte-hartzearen babesa zehazten du, hura ikastetxeko teknikariaren gaitasunekin eta jardun-eremuarekin lotuta.*

HELBURUAK	
Konpetentzia espezifikoak	<p>AK1</p> <ul style="list-style-type: none">• Gizarteratzearen eta laneratzearen testuingurua zehaztea, eta lege-esparrua eta eskuragarri dauden baliabideak aztertzea. <p>AK2</p> <ul style="list-style-type: none">• Hezkuntzako parte-hartzearen babesa zehaztea, ikastetxeko teknikariaren gaitasunekin eta jardun-eremuarekin lotuz.

¹ AK. Ikasleak lortu beharreko azken kompetentziari egiten dio erreferentzia.

² AG. OCDko ikasketa-emaitzak dira, gaitasun bihurtuak.

JARDUERAK

HURBILPEN-FASEA:

- J0. Txostena aurkeztuko da.
- J2. Girotzeko, gaiaren inguruko filmak ikusiko dira eta galderei erantzungo.
- J3. Filmen inguruko iruzkinak egingo dira.
- J4. *Haikua* sortuko da.

GARAPEN-FASEA:

- J5. Gaiarekin erlazionaturiko sarrerako edukiak aditu taldeetan landuko dira.
- J6. Gizarteratze-teknikariaren profila lantzeko, *word coffee* dinamika egingo da.
- J7. Gizarteratze-teknikariaren ezaugarriak lantzeko dinamika bat egingo da.
- J8. Gautenara bisitan joango dira.
- J9. Kolektiboak aztertuko dira.
- J10. Gizarteratzea eta laneratzea: *Udalmap* eta lan-politikak aztertuko dira.
/Hezkuntza Laguntza-baliabideak: berritzeguneak aztertuko dira.
- J11. Kasuak landuko dira eta ikasleak trebatu egingo dira.

APLIKAZIO-FASEA:

Ebaluazio-proba: bakoitzak kasu bat ebatziko du.

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

- Oso kontuan hartuko da bertaratzea (gutxienez % 80).
- Amaierako gaitasun guztiak gainditu behar dira.
- Konpetentzia espezifikoak honela neurtuko dira:
 - talde-proiektuak: % 25
 - autorregulazioa (taldeka): % 15
 - banakako proba: % 60

EPEAK

Erronka xxx hasi, eta xxx bukatuko da; guztira, 54 ordu.

2. ERANSKINA

J2.1. FILMAK LANTZEKO GALDERAK

LOS LUNES AL SOL



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Fernando León de Aranoa

Aktoreak: Javier Bardem, Luis Tosar, Nieves de Medina

Gidoia: Fernando León de Aranoa eta Ignacio del Moral

Iraupena: 113 minutu

Nazionalitatea: espainiarra

Produkzio-urtea: 2002

Sinopsia: Santa, José, Lino, Amador eta Reina, guztiak 45 urtetik gorakoak, duela urtebete ontziola batetik kaleratuak izan ziren eta langabeziaren arazoari modu anitzetan egiten diote aurre.

Puntu hauek erabiliko dituzue hausnarketa egiteko:

1. Esanguratsua al da *lunes* hitza filmaren izenburuan egotea?
2. Kasualitatea al da protagonista guztiak gizonaizkoak eta helduak izatea?
3. Zer fasetan daude Santa, José, Lino eta Amador iraupen luzeko langabeziaren espiralean? Zergatik?
4. Deskriba ezazue Paulino Rivasen prozesua lana bilatzeko.
5. Zer ezaugarrik oztopatzen du berriz ere laneratzea?
6. Zein eszena da zirrargarriena? Zergatik?

DETRÁS DE LA PIZARRA

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Jeff Bleckner

Aktoreak: Emily VanCamp, Steve Talley, Timothy Busfield, Julio Oscar Mechoso, Nicki Aycox, Kiersten Warren


Gidoia: Camille Thomanson

Iraupena: 95 minutu

Nazionalitatea: estatubatuarra

Produkzio-urtea: 2011

Sinopsia: Stacey 24 urteko irakasle gaztea da, eta haren lehen lana baztertze-egoeran dauden pertsonen seme-alaben irakasle izatea izango da. Administrazioaren aldetik inolako laguntzarik gabe eta baliabide eskasekin, Staceyk berariazko baliabideak erabiliko ditu ikastetxea ikasleentzat toki atsegina bihurtzeko.



Puntu hauek erabiliko dituzue hausnarketa egiteko:

1. Zer inguruetan gertatzen da filma? Azaldu itzazue espazioaren eta testuinguruaren ezaugarriak.
2. Zer ezaugarri ditu aniztasunak? Azaldu itzazue ikasleen ezaugarriak.
3. Zerk kentzen die ikasleei ikasteko gogoak? Zerk zailtzen du ikasteko prozesua?
4. Zer-nolako irakaskuntza dago? Eta nolakoa da irakaslearen rola?
5. Zer estrategia pedagogiko eta metodologiko aplikatzen ditu irakasleak?
6. Zer baliabide ditu eskura irakasleak eta nola egiten dio aurre egoerari baliabide horiekin?
7. Nola ikasten dute ikasleak?
8. Familia-eremuarekin loturiko zer gai jorratzen ditu filmak? Nola eragiten dute egora horiek ikasteko prozesuan?
9. Zer jarrera hartzen dute familietako kideek?
10. Nola eragiten dute heziketan hiru komunikazio-estiloek –agresiboa, pasiboa eta asertiboa–?

3. ERANSKINA

J3.1. FILMEN IRUZKINAK

LOS LUNES AL SOL



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Fernando León de Aranoa

Aktoreak: Javier Bardem, Luis Tosar, Nieves de Medina

Gidoia: Fernando León de Aranoa eta Ignacio del Moral

Iraupena: 113 minutu

Nazionalitatea: espainiarra

Produkzio-urtea: 2002

Sinopsia: Santa, José, Lino, Amador eta Reina, guztiak 45 urtetik gorakoak, duela urtebete ontziola batetik kaleratuak izan ziren eta langabeziaren arazoari modu anitzetan egiten diote aurre.

Iruzkina idazteko, egin itzazue jarduera hauek:

1. Filmaren datuak –zuzendaria, aktoreak, urtea, etab.– identifikatu, eta paragrafo batean idaztea.
2. Testuinguru historikoa deskribatzea, bizitza errealean oinarritua dagoen aztertuz.
3. Paragrafo batean edo bitan filmaren argumentua idaztea. Filmaren zati garrantzitsuenak ez dira azalduko; hala nahi izanez gero, eszena deigarri edo esanguratsuen aipamenak, ordea, bai. Protagonistak eta jarrera nagusiak laburki aipatuko dituzue.
4. Galdera hauei erantzunez, balorazioa egitea:
 - Gomendagarria da? Zergatik?
 - Ikaskideek ikusi beharko lukete? Nork? Zergatik?
 - Zer mezu du filmak? Zer balio sustatzen ditu?
 - Zer ikas daiteke istorio honetatik?
 - Nola uztartzen da filma lan-munduratzearen gaiarekin?

DETRÁS DE LA PIZARRA

FITXA TEKNIKOA

Zuzendaritza: Jeff Bleckner

Aktoreak: Emily VanCamp, Steve Talley, Timothy Busfield, Julio Oscar Mechoso, Nicki Aycox, Kiersten Warren


Gidoia: Camille Thomanson

Iraupena: 95 minutu

Nazionalitatea: estatubatuarra

Produkzio-urtea: 2011

Sinopsia: Stacey 24 urteko irakasle gaztea da, eta haren lehen lana baztertze-egoeran dauden pertsonen seme-alaben irakasle izatea izango da. Administrazioaren aldetik inolako laguntzarik gabe eta baliabide eskasekin, Staceyk berariazko baliabideak erabiliko ditu ikastetxea ikasleentzat toki atsegina bihurtzeko.



Iruzkina idazteko, egin itzazue jarduera hauek:

1. Filmaren datuak –zuzendaria, aktoreak, urtea, etab.– identifikatu, eta paragrafo batean idaztea.
2. Testuinguru historikoa deskribatzea, bizitza errealean oinarritua dagoen aztertuz.
3. Paragrafo batean edo bitan filmaren argumentua idaztea. Filmaren zati garrantzitsuenak ez dira azalduko; hala nahi izanez gero, eszena deigarri edo esanguratsuen aipamenak, ordea, bai. Protagonistak eta jarrera nagusiak laburki aipatuko dituzue.
4. Galdera hauei erantzunez, balorazioa egitea:
 - Gomendagarria da? Zergatik?
 - Ikaskideek ikusi beharko lukete? Nork? Zergatik?
 - Zer mezu du filmak? Zer balio sustatzen ditu?
 - Zer ikas daiteke istorio honetatik?
 - Nola uztartzen da filma lan-munduratzearen gaiarekin?

4. ERANSKINA

J4. HAIKUA

Haikua olerki mota bat da, eta jatorri japoniarra du. 3 lerro ditu, eta 5-7-5 silabaz osatzen dira 3 lerroak, hurrenez hurren.

Azaldu zaizuen erronkaren inguruan *haiku* bat osatu beharko duzue. 15 minutu izango dituzue erronkaren inguruko ideia eta emozio nagusiak modu originalean *haiku* batean idazteko. Gero, gelan irakurriko dituzue zuen lanak; horrela, taldeak erronkaren aurrean duen gogo-aldarteaz ezagutuko duzue.

IDATZ EZAZUE HEMEN ZUEN *HAIKUA*

5. ERANSKINA

J5. SARRERAKO EDUKIAK (INO modulukoek)

1. Erantzun iezaiezue bi galdera hauei:

- Zer dira enplegu-plan aktiboak?
- Zer dira enplegu-plan pasiboak?

2. Irakur ezazue arretaz testu hau:

2020 EUROPA ESTRATEGIA

Europako Batzordeak Europa 2020 estrategia politiko berria proposatzen du, globalizazioak, finantza-krisiak, populazioaren zahartzaroak eta aldaketa klimatikoak eragindako eraldaketari aurre egiteko.

Estrategia horren bitartez, Europar Batasunak eta Europako Batzordeak berreskuratze ekonomikoa bultzatu nahi dute hazkunde jasangarrian oinarrituz; horretarako, helburu hauek planteatu dituzte:

- enplegu-arloan, 20 eta 64 urte bitarteko populazioan % 75eko enplegu-tasa lortzea
- ikerketan eta garapenean, barne-produktu gordinaren % 3 ikerketan eta garapenean inbertitzea
- ingurumenean, dioxido karbonoaren isurtzea % 20 gutxitu eta energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna % 20 igotzea
- hezkuntzan, eskola-porrota % 10 baino gutxiagora jaitsi, eta goi-mailako titulazio-tasa % 40ra igotzea
- gizarte-bazterketan, txirotasun-ataritik behera bizi diren pertsonak 20 milioi gutxiago izatea

ENPLEGU-POLITIKARAKO GIDALERROAK

Europar Batasunak estatuek beren enplegu-politiketan txertatu behar dituzten gidalerro batzuk ezartzen ditu helburuak lortzeko. 10 gidalerrotatik 4 zuzenean enpleguarekin lotzen dira:

- 7.ean, lan-merkatuan emakume eta gizonezkoen parte-hartzea areagotzea, egiturazko langabezia gutxitzea eta kalitatezko enplegua sustatzea
- 8.ean, lan-merkatuaren beharrei erantzuten dien populazio aktibo kualifikatua lortu, eta etengabeko ikaskuntza sustatzea
- 9.ean, maila guztietan hezkuntza- eta formazio-sistemen emaitza eta kalitateak hobetzea, eta goi-mailako ikasketetan parte-hartzea areagotzea
- 10.ean, gizarte-inklusioa sustatu, eta txirotasunaren aurka borrokatzea

3. Erantzun iezaiezue galdera hauei:



- Zer dira arau lotesleak eta arau ez-lotesleak?
- Zer arau lotesle ditu Europar Batasunak? Azaldu ezazue zer diren zuen hitzetan.

4. Europar politiketatik abiatuz, Espainiako estatuak zer plan ezarri du enplegua sustatzeko?

5. Laugarren galderako erantzuna kontuan hartuta, erantzun iezaiezue galdera hauei:

- Zer 6 ardatzetan oinarritzen da estrategia?
- Zer mailatan kategoriza daiteke adituen arabera gaur egungo jarduera ekonomikoen egoera?
- Zer jarduera ekonomiko doa hobekien Espainiako estatuan? Eta zer ekar dezake horrek etorkizunean?
- Zer lotura du LANBIDEk dokumentu horrekin?

6. ERANSKINA

J5. SARRERAKO EDUKIAK (HPB modulukoek)

2017ko otsaila, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein herritan:

“Gure semeak hiru urte beteko ditu laster. Datorren ikasturtean Haur Hezkuntzako 2. zikloan hasiko da. Orain arte ospitalez ospitale eta kontsultaz kontsulta ibili gara, eta proba ugari egin dizkiote diagnosi zehatz bat aurkitu nahian.

Ez, ez dago gaixorik. Ez du tratamendu terapeutikorik eta ez dago partzialki edo eta osorik sendatuko duen botikarik. Zuek edo nik izan ditzakegun osasun-arazoak ditu.

Pediatrak urritasun batekin jaio zela adierazi digu. Hori besterik ez da; sinplea, ezta? Sinplea dela adierazterik badago behintzat...

Galduta gaude. Zer hartu behar dugu kontuan gure semea eskolatzean? Adin bereko neska-mutilen gurasoak ezagutzen ditut. Haur horiek, nireak bezala, hiru urte beteko dituzte eta, guk bezala, orain egingo dute matrikula.

Baina... gure semea ez da besteak bezalakoa; «ezberdina» da; halakoa al da? Hobeto esanda, bera ez da ezberdina; ezberdina «egoera» dela esango nuke. Egoera «berezia» duela esango nuke, zuen baimenarekin.

Gure txikia desgaitua da... zertarako da desgaitua? Gauza guztietarako? Zerbaitetan?

Nora jo dezaket? Nonbait abisatu behar dut? Nori abisatu behar diot? Orientazio-taldeaz zerbait entzun dut, baita ebaluazio psikopedagogikoa hitza ere... Zer da hori? Non eskura dezaket informazioa? Nori eska diezaioket laguntza? Inork lagunduko al dit? Ba al dut laguntza eskatzeko eskubiderik? Legeak babesten al gaitu? Eskubiderik badugu?

Nire zalantzak, ilusioak, beldurrak, desioak... etxe aurrean kokaturik dudana ikastetxera zuzentzen ditut. Ikastetxe hori da gustuko duguna. Gure txikiak han ditu arrebak, eta horregatik zentro horretan matrikulatzea erabaki dugu. Horrela, auzoko beste haurrak ezagutzeko aukera izango du, haiekin saltoka, korrika, borroketan, bihurrikerietan... arituko baita. Edo ezin izango du?

Ikastetxeko zuzendaria nire zain dago; hiru hitz ezpainetan dituela, nire zain dago. Aldez aurretik prestatu dituen hiru hitz dira, ateratzeko egonarri dauden hitzak, hemendik aurrera bidelagun izango ditugun hitzak, gureak izateko zain daudenak. Hiru hitz horiek mantentzen naute zutik, eta banaezinak bezala entzun ditut: «Markatu ezazu inprimakian Hezkuntza Premia Berezien laukitxoak, mesedez».

Zer esan du? Heziketa Premia Bereziak esan du? Zuzendariak ahoz lotu ditu eta hemendik aurrera nire belarriek sekula santan ez dituzte banatuko.

Testua irakurri ostean, puntu hauek jorratu beharko dituzue:

Horretarako, lagungarri izan ditzakezue:

- Egungo legedia: legea eta dekretua. www.hezkuntza.net
- «Warnock txostena»
- Iturri fidagarrietatik lortutako informazioa: irteerak eta hitzaldiak

1. Zer pauso jarraitu behar ditu guraso honek bere semea matrikulatzeko?
2. Identifika itzazue eskura dituen zentro motak eta ezaugarriak.
3. Zer erakundek eta profesionalak hartzen dute parte orientazio-prozesuan?
4. Deskriba itzazue erakundeen eta profesionalen eskumenak, organigramak...
5. Zer ezaugarri dituzte hezkuntza-laguntza jaso dezaketen ikasleek?
6. Egin ezazue hausnarketa galdera hauen inguruan:
 - Zer-nolako beldurrak izango ditu gurasoak?
 - Zer zalantza sor diezazkioke errealitate horrek? Zerrendatu itzazue zalantzak, hezkuntza-arloari dagozkionak bereziki.
 - Zer dakizue gurasoaren zalantzei erantzuteko? Zer jakin beharko zenukete?
7. Zer da «Warnock txostena»? Zer ekarpen egin zien txostenak normalizazio-prozesuei? Zer printzipio hartzen ditu barne? Zer ekarri zuen printzipio horien aplikazioak?
8. Defini itzazue hezkuntza-integrazioa eta hezkuntza-inklusioa. Zer dute komunean? Zertan bereizten dira?
9. Egin ezazue lege-esparruaren azterketa eta hausnarketa:
 - Identifika, eta jaso ezazue idatziz LOMCE legea eta EAEn garatzen den dekretua.
 - Identifika, eta jaso ezazue idatziz hezkuntza-laguntzaren definizioa.
 - Identifika, eta zerrendatu ezazue zer ikaslek jaso dezaketen hezkuntza-laguntza.
 - Identifika, eta zehaztu ezazue gurasoen eta ikasleen parte-hartzea.
 - Identifika ezazue haurraren matrikulazio-prozesua, eta kokatu itzazue diagnosa, ebaluazio psikopedagogikoa eta eskolatzetxostena.
 - Identifika, eta zerrendatu itzazue eskolatzet motak inklusiboenetatik murriztaileenetara.

7. ERANSKINA

EREDU-TXOSTENA

EREDU-TXOSTENA ETA GIDA (Izenburua)

Gizarteratzea goi-mailako heziketa-zikloko 2. maila

Erronka:

Data:

Egileak:

LABURPENA

Atal honetan, 150-250 hitzetan lanaren laburpena idatziko duzue. Ahalik eta modu erakargarrienean zuen lanaren ideia nagusiak deskribatu, eta irakurleari laneko informazioaren berri emango diozue. Lanean iritzi edo ondoriorik agertzen bada, hemen aipatuko duzue. Atal hau 3. pertsonan idazten da. Gune honetan, euskaraz idatziko duzue.

ABSTRACT

Atal honetan, 150-250 hitzetan lanaren laburpena idatziko duzue. Ahalik eta modu erakargarrienean zuen lanaren ideia nagusiak deskribatu, eta irakurleari laneko informazioaren berri emango diozue. Lanean iritzi edo ondoriorik agertzen bada, hemen aipatuko duzue. Atal hau 3. pertsonan idazten da. Gune honetan, ingelesez idatziko duzue.

RESUMEN

Atal honetan, 150-250 hitzetan lanaren laburpena idatziko duzue. Ahalik eta modu erakargarrienean zuen lanaren ideia nagusiak deskribatu, eta irakurleari laneko informazioaren berri emango diozue. Lanean iritzi edo ondoriorik agertzen bada, hemen aipatuko duzue. Atal hau 3. pertsonan idazten da. Gune honetan, gaztelaniaz idatziko duzue.

AURKIBIDEA³

1. Sarrera	X
2. Lanaren atalak eta azpiatalak ⁴	X
3. Bibliografia	X
4. Eranskinak	X

IKERKETA-PROIEKTUAREN AURKIBIDEA⁵

1. Sarrera: lanaren justifikazioa	X
2. Lanaren deskribapena	
2.1. Helburuak	X
2.2. Hipotesiak	X
2.3. Aurrekariak eta oinarri teorikoak	X
3. Metodologia	
3.1. Baliabideak eta metodologia	X
3.2. Emaitzak	X
4. Ekintza-proposamena	X
5. Ondorioak	X
6. Etorkizuneko ikerketa-arloak	X
7. Bibliografia	X
8. Eranskinak	X

³ Eredu-txosten honetan 2 aurkibide daude: lehenengoa, txosten arrunt batean erabiltzeko; bigarrena, aldiz, proiektu baten txostena aurkezteko.

⁴ Erronkan eskatutako lanaren arabera, txostenaren atalak egokitu beharko dituzue. Ondorioz, atalen zenbakiak alda daitezke.

⁵ Dokumentu honetan agertzen diren azalpenak ez dira ikerketa-txosten bati buruzkoak. Azalpen horiek, dagokionean, irakasleak emango ditu.

1. Sarrera

Sarrerak irakurlea lanean kokatzen du. Atal honetan, lanaren deskribapenaren eta zergatiaren berri emango dizue; lanaren helburuak ere hemen azalduko dituzue, eta lanaren garrantzia aipatu nahi izanez gero, hemen idatzi beharko dizue. Gaiaren aurrekariak eta arazoaren egoera aipatzekotan, atal honetan egingo dizue.

Azkenik, txostenaren edukiak era labur batean deskribatuko dituzue, irakurleari lanean zehar aurkituko dituen egitura eta edukiak aurreratzeko.

2. Lanaren atalak eta azpiatalak

Lanaren edukia agertuko da atal honetan. Lanean eskatutakoaren arabera, atal eta azpiatal gehiago edo gutxiago izango ditu. Gune honetan eskatutako eduki guztiak modu txukun, antolatu eta koherentean idatziko dituzue.

3. Bibliografia

Alfabetikoki ordenatuta, lana osatzeko erabilitako informazio-iturriak banan-banan zerrendatuko dituzue. Erreferentziak egokiak izango badira, zerrendan agertzen diren iturri guztiek azaldu behar dute txostenean.

Iturri horiek zerrendatzeko, American Psychological Association (APA⁶) erakundearen jarraibideak erabiliko dituzue. Adibidez:

Liburuak

Bisquerra, R. (2008). *Educación emocional y bienestar*. Madrid: Wolters Kluwer España, S.A.

Aldizkari inprimatua

Jauregi, A. (2017). Airean, Lurrean eta Bihotzean. *Oilategitik*, 17. alea, 16-19.

Aldizkaria on-line

Agirre, L. (2017). Sagarraren mama gozoa. *Oilategitik*. Hemendik eskuratua: <http://www.oilategitik.net/19/artikuluak/sagarraren-mama-gozoa>

⁶ APAren jarraibideak ikusteko, zoazte <http://normasapa.net/2017-edicion-6/> estekara.

Webguneak (egilerik gabe):

Tolosako Inmakulada Lanbide Ikastola (2017, Azaroa, 20). Hemendik eskuratua:
<http://www.inmakuladatolosa.eus/index.php/home/>

4. Eranskinak

Lana ulertzeko informazio lagungarria lanean txertatzeko luzeegia denean edo informazio osagarria denean (eta ez oinarritzko informazioa), horiek guztiak atal honetan gehituko dituzue. Material horrek esanguratsua izan behar du, ordea, eta lanarekin koherentea ez den informaziorik ez duzue sartuko.

Eranskinak zenbakiturik jarriko dituzue (1. eranskina), eta txostenean eranskin horri erreferentzia egingo diozue informazioa osatzeko dagokion unean.

Eranskinak dokumentuak eta taulak edo grafikoak direnean, bakoitzari bere zerrenda esleituko diozue, eta «1. eranskina» eta «1. taula/1. grafikoa» moduan izendatuko dituzue.

1. ERANSKINA: OIN-OHARRAK

Oin-oharra testuko atal zehatz bati egiten zaion erreferentzia da, informazioa garatzeko edo osatzeko gehituko duzuen. Ideia bakoitzak ohar bat izan beharko du. Erreferentzia egin nahi zaion testuko atalari zenbakia ipintzen zaio, eta orrialdearen oinean azalpena eman. Hala ere, ez da gehiegi erabiltzea komeni.

Txostenean 7 oin-ohar dituzue orrialde hauetan: 19an, 32an, 33an eta 58an.

2. ERANSKINA: AIPUAK

Aipuak besteen ideiei egiten zaizkien erreferentziak dira. Badakizue beste pertsonen ideiak, lanak edota lanaren atalak ezin direla zuen lanean kopiatu, autore-eskubideek eta etikak mugak jartzen baitituzte. Plagioak ez dira onargarriak lanetan. Aipuak sartuz gero, norena den ideia eta urtea aipatuko dituzue; gero bibliografian ikusiko da zer informazio-iturri den.

Erreferentzia horiek egiteko moduak aldatu egiten dira aipu motaren arabera. AParen (2017) jarraibide hauek erabiliko dituzue:

Aipu zuzenak:

Testuaren edukia aldatu gabe egiten diren aipuak dira. Horrelakoetan, autorea, urtea eta orrialdea aipatuko dituzue; testuak orririk ez badu, paragrafoa aipatuko duzue.

Hitzez hitz kopiatzen diren *40 hitz baino gutxiagoko* aipuak kakotx artean jarri, eta amaieran parentesi artean erreferentzia egingo diezue.

Joxe Azurmendiren esanetan, “Bi arazoren inguruan aipatu da Renan gure artean, aipatu dentxoa: bat erlijiosoa [...], eta bestea politikoa [...] (Azurmendi, J., 2014, 13. or.)

Hitzez hitz kopiatzen diren *40 hitz baino gehiagoko* aipuak beste paragrafo batean idatzi beharko dituzue, kakotxik gabe.

Joxe Azurmendik honako hau azaltzen digu Renanen bizitzaz (Azurmendi, J., 2014, 44. or.):

Renanen patua, biziera irauli diona, pentsamendu protestante alemanarekin topatzea izan da, horrek zeharo zapartarazi baitizkio desgogara ikasten zuen teologia nahi bihotzondoan kuttuna zuen haur bretoiaren fede sotila, aurrerantzeko bizitza intelektual eta profesional osoa determinatuaz. Dogmatikatik Bibliara itzuli da eta, horrekin, fedearen (erlijioaren) historiara, hori izango du bere bizitzako lana.

Zeharkako aipuak:

Beste pertsonen ideiak zuen hitzetan aipatzen dituzuenean, autoreak eta urtea aipatuko dituzue, eta ez duzue kakotxik erabiliko:

Joxe Azurmendiren ustez (Azurmendi, J., 2014) Renan erlijio- eta politika-arloez jarduteko aipatzen da.

3. ERANSKINA: FORMATUA

Txostena Georgia 12 letra-tipo eta tamainarekin idatziko duzue. Orriak zenbakitu egingo dituzue, eta aurkibidean atal eta azpiatal guztiak dagozkien orriarekin agertuko dira txostenean. Taulak, grafikoak eta irudiak ere zenbakituta jarriko dituzue eta dagozkien izenburuarekin. Irudiak zuenak ez badira, irudiaren jatorria aipatuko duzue irudiaren azpian.

8. ERANSKINA

J6. WORD COFFEE

Kafe bat eskuetan eta galdera batzuk oinarri izanda, solasean egingo duzue *word coffee* dinamikaren pausoei jarraituz.

Lehenik eta behin, 5 kideko 6 mahai antolatuko dituzue. Mahaietan orri bana egongo da galdera batzuekin eta anfitrioi bana aukeratuko duzue.

Jarraian, irakasleak galdera bat egingo dizue eta mahai-inguruan arituko zarete 8 minutuz.

Lehen 8 minutuak pasa eta gero, mahaikideak beste mahaietan banatuko zarete elkarren artean nahasiz; anfitrinoa, ordea, bere mahaian geratuko da. Anfitrioniak mahaikide berriei aurreko eztabaida laburtu ondoren, talde berriak sortuko dituzue. Beste 6 minutuz galdera beraren inguruan arituko zarete hizketan.

Mahaikideok 6 minutuan behin aldatuko zarete mahaiz, anfitrioi guztiekin egon arte. Irakasleak galdera gehiago egingo dizkizue eztabaida aberasteko.

Solasaldiak amaitu eta gero, anfitrioniek ideia nagusiak laburbildu, eta talde handian azalduko dituzte.

Azalpen guztiak entzundakoan, eskura izango duzuen A3 neurriko orri zuri batean gaiaren inguruko hitzak, marrazkiak, etab. jasotzeko aukera izango duzue.

Galderetako batzuk hauek izan daitezke:

- ✓ Ezagutzen al duzue gizarteratze-teknikariaren profil profesionala?
- ✓ Zer lan-esparrutan jarduten du?
- ✓ Legez arauturik al dago gizarteratze-teknikariaren lan-profila?
- ✓ Zer gaitasun pertsonal eta profesional izan behar ditu gizarteratze-teknikariak, zuen ustez?
- ✓ Zer beste profesionalekin arituko da lankidetzan?
- ✓ Gizarteratze-teknikarien lana aintzakotzat hartzen dela uste al duzue? Horrela ez bada, zer egin daiteke hori aldatzeko?

Hauek dira *word coffee* beharko dituzuen baliabideak:

- ✓ kafea eta pasta batzuk partekatzeko gune goxo bat
- ✓ amaieran adierazpenak egiteko, A3 neurriko orri zuri bat
- ✓ anfitrioniek notak hartzeko orri zuri eta bolaluma bana eztabaida-mahaietan

9. ERANSKINA

J7. GIZARTERATZE-TEKNIKARIA... BALITZ?

Gizarteratze-teknikaria animalia izango balitz, hauetako zein izango litzateke? Zergatik?



Gizarteratze-teknikaria landarea izango balitz, hauetako zein izango litzateke? Zergatik?



10. ERANSKINA

J9.1. OBJEKTUAREN ANALISIA (INO modulukoek)

Hauek dira aztertuko dituzuen kolektiboak:

- emakumeak
- etorkinak
- 45 urtetik gorakoak
- gazteak
- bazterketa-arriskuan daudenak
- urritasunen bat dutenak

EGOKITUTAKO KOLEKTIBOA: _____

Galdera hauek erabiliko dituzue hausnarketa egiteko:

1. Zer ezaugarrik deskribatzen dute egokitutako kolektiboa?
2. Zer da enplegarritasuna?
3. Zer ezaugarrik eragiten dio enplegarritasunari?
4. Nolakoa da kolektiboaren lan-merkatua?

11. ERANSKINA

J9.1. OBJEKTUAREN ANALISIA (HPB modulukoek)

Hauek dira aztertuko dituzuen kolektiboak:

- urritasun fisikoak dituztenak
- urritasun psikikoak dituztenak
- zentzumen-urritasunak dituztenak
- portaeran desoreka larriak dituztenak
- gizarte- edo kultura-egoera kaltetuan daudenak
- arrazoi anitzengatik eskolatu ezin direnak

EGOKITUTAKO KOLEKTIBOA: _____

Galdera hauek erabiliko dituzue hausnarketa egiteko:

1. Hezkuntza-laguntza eta hezkuntza-premia bereziak gauza bera al dira? Arrazoitu ezazue.
2. Eman ezazue hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen definizioa, egokitu zaizuen profila kontuan harturik. Zergatik behar dute laguntza?
3. Zer ezaugarrik deskribatzen dute egokitutako kolektiboa?

12. ERANSKINA


J9.2. INSTATWITTER

Aurretik egindako lan guztia taldekideekin partekatu behar duzue, baina orain *instatwitter* erabiliko duzue. Landutako informazioa besteei helarazteko, baldintza hauek bete beharko dituzue:

- argazkiak edo irudiak erabiliko dituzue
- argazki bakoitzak gehienez 140 karaktere izango ditu

13. ERANSKINA

J10.1. UDALMAP (INO modulukoek)



EGOKITUTAKO UDALERRIAK: _____

Ezagutzen al duzue *Udalmap*? Gizarte-arloa eta ingurunea ikertzeko tresna interesgarria izan daiteke; bertan agertzen den informazioa aztertzeke eta interpretatzeko gai izan behar duzue horretarako.

Lehenik eta behin, erantzun iezaiezue hiru galdera hauei:

1. Zer da *Udalmap*?
2. Zertarako balio du?
3. Fidagarria al da?

Ondoren, egokitutako udalerraren adierazleetatik abiatuz, azaldu itzazue egoera sozioekonomikoari buruzko ondorioak:

1. Ekonomiaren hiru sektoreetatik, zein nagusitzen da egitura ekonomikoan?
2. Azter itzazue langabezia-tasa eta okupazio-tasa (lan-merkatua).
3. Azter itzazue nolakoak diren populazioaren baliabide ekonomikoak. Zer egoeratan dago egokitu zaizun udalerriko populazioa?
4. Azaldu itzazue populazioaren mugimendu naturalak. Nola eragiten dute atzerriko populazioaren mugimenduek? Eta nolakoak dira mugimendu horiek?

14. ERANSKINA

J10.1. BERRITZEGUNEAK (HPB modulukoek)



Ezagutzen al dituzue berritzeguneak? Hezkuntzan laguntza emateko zerbitzu gisa eratuta daude; dena den, etekinik aterako badiezue, funtzionamendua eta helburuak ezagutu behar dituzue.

BERRITZEGUNEAK

1. Zer dira berritzeguneak eta zer funtzio dute?
2. Nola antolatzen dira berritzeguneak?
3. Nor dira berritzeguneetako langileak?
4. Zer funtzio dituzte berritzeguneek, hezkuntza-laguntzari dagokionez? Ikus itzazue programak eta baliabideak.
5. Nola lotzen dira funtzio horiek ikasleen eta ikastetxeen beharrekin? Erlaziona itzazue balorazio- eta matrikulazio-prozesuekin.
6. Zer dira espezialistak eta nola koordinatzen dituzte berritzeguneek?
7. Zer ikasle-kolektibok jaso dezakete berritzeguneen laguntza?
8. Nolako harremana dute, hezkuntza-laguntzari dagokionez, Aspace, Aransgi, Gautena eta CRI moduko erakundeekin? Zertarako?
9. Zer-nolako parte-hartzea dute gurasoek berritzeguneen eta ikastetxeen esku-hartzean?

15. ERANSKINA

J10.2. LAN-POLITIKAK (INO modulukoek)

EGOKITUTAKO KOLEKTIBOAK: _____

Deskriba itzazue lan-politika orokorrak zein kolektiboak.

16. ERANSKINA

J10.2. NORBANAKO CURRICULUM-EGOKITZAPENAK (HPB modulukoek)

Aniztasunari arreta emateko prozesuan orain arte ikusitako printzipioetan –ikasleak taldean integratzea eta premia berezietan laguntza ematea– oinarritu nahi izanez gero, hezkuntza-premiei erantzun egokia emateko neurriak eduki behar dituzue eskura. Neurri horien guztien artean, curriculum-egokitzapenak esku-hartzearen ardaztat har daitezke.

Hona hemen NCE (Norbanako Curriculum-Egokitzapenak) ikertzeko hainbat galdera:

1. Zer dira NCE?
2. Nork egiten ditu egokitzapen horiek?
3. Zer egokitzapen mota daude?
4. Zer irizpide bete behar ditu ikasleak NCE edukitzeko?
5. Zer ondorio dituzte egokitzapen horiek?
6. Zenbaterainokoa da familiaren eskumena egokitzapenetan?
7. Zer elementuk osatzen dituzte egokitzapenak?
8. Zer neurri dira hezkuntza-errefortzuak? Aipa, eta gara itzazue neurri hauek.

Agindu hau izango duzue lagungarri:

AGINDUA, 1998ko uztailaren 24koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat honako hauek arautzen dituena: alde batetik, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena eta, bestetik, ez-unibertsitatekoa den hezkuntza-sistemaren etapetan egokitzapen horiek egiteko, garatzeko eta ebaluatzeko prozedura.

17. ERANSKINA

J11. INO MODULUKOEN KASUAK

IÑAKIREN KASUA

Iñakik 16 urte bete berri ditu. Donostiako ikastetxe publiko batean DBH4 ikasten ari da eta ez du ikasturtea gaindituko. DBH2n hasi zen bere gainbehera ikasketetan, eta ordutik bere egoerak okerrera egin du. Jarrera eta jokabideak ez dira egokiak izan; ikasturte honetan taldekide bati eraso egin zion eta irakasleei errespetua faltatzeagatik ikastetxetik bota dute.

Ez du inongo interesik agertzen ikasketetan, informatika-arloan ez bada, arlo hori atsegin eta menderatzen baitu. Etorkizunean zer egin ez dakiela esaten du. Informatika-arloan egingo luke lan, baina horrek ikasten jarraitzea esan nahi duenez, aukera hori baztertu egin du. Lanean hastea iruditzen zaio aukerarik egokiena, baina ez daki nondik nora jo aukera hori aurrera eraman ahal izateko.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Iñakiren enplegarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Iñakiri dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

MIRARIREN KASUA

Mirari 35 urteko emakumea da. Banandua dago eta Tolosan bizi da 3 eta 8 urteko bi semerekin. Lehenbailehen behar du lan bat etxeko gastuei aurre egiteko eta lan profesionala semeen zaintza eta etxeko lanekin bateragarri egiteko. Haurrak eskolatuak daude, eta arratsalde batzuetan amak laguntzen dio haurrak zaintzen.

Azken hilabeteotan lan bila ibili da, baina ez oso modu saiatuan; tokiko prentsan lan-
eskaintzak begiratu ditu. Ez du gida-baimenik, eta bere burua eskaini du herriko
hainbat dendatan, baita zahar-egoitzetan ere, lan egiteko.

Formazioz eskola-graduata da, eta 18 urte zituenean, Erizaintzako Zainketa
Osagarriak heziketa-zikloko lehen maila egin zuen.

12 urtez dendari aritu zen mertzeria batean. Lehen semea jaio zenean, lana utzi zuen;
aisialdiko jardueretan aritu zen, besteak beste, yogan eta zeramikan. Hiru urtean
bizilagun zuen adineko bikote bat zaindu zuen. Azken bi urteetan ez du lan egonkorrik
izan; jende heldua artatu du, baina oso aldika.

Ez daki bere curriculum vitae ongi osatzen, ez du ordenagailurik eta ez daki horiek
erabiltzen. Ez daki zer gehiago egin lana aurkitzeko.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Mirariren enplegarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Mirariri dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

PEIOREN KASUA

Peiok 28 urte ditu eta erdi mailako adimen-urritasuna du diagnostikatuta. Autonomia-maila nahiko altua du: espazioan eta denboran orientatzeko gaitasuna du, orduak ezagutzen ditu eta hirian bakarrik mugitzeko gaitasuna du. Halaber, gai da bere higiene-beharrak betetzeko.

18 urte arte hezkuntza-premia berezietako gelan egon zen. 18-20 urte bitartean, fundazio batean lanaldi aurreko formazioa jaso zuen biltegiko mutil-lanetan aritzeko. Helburua lan arrunt batean txertatzea zen, baina hiru urte iragan arte ezinezkoa izan zen.

Lanean bi esperientzia izan ditu: 20 urterekin lorezain-lanetan hasi zen, eta hiru urtean bere jarrera zuzena, baina pasibo samarra izan zen. Produkzio-maila altua zuenez, lan arrunt bat egitea proposatu zioten. 23-27 urte zituen bitartean, garraio-enpresa batean aritu da lanean, biltegiko mutil-lanetan. Azken urtean arazoak izan dituzte Peiorekin puntualitate falta, interes falta eta justifikatu gabeko faltak izan dituelako, besteak beste; horregatik, ez diote kontratua berrituko.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Peioren enplegarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Peiori dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

PILARREN KASUA

Pilar 36 urteko emakume donostiarra da, 6 seme-alabaren familia bateko txikiena. Aitak bizitza erdia kartzelan eman du, eta ez du ia ezagutzen. Gainera, kalean egon denean ez da haietaz arduratu. Amak nahiko lan zuen haur guztiak aurrera ateratzen, eta normalean gizarte-zerbitzuen laguntzarekin egiten zuten aurrera.

Pilar oso gaztetan sartu zen drogen munduan: 14 urte zituela, ikastolatik kanporatu zuten, atarian txikizkako droga-salerosketan zebilelako. Ordutik, bizitzan gainbeheran joan da. 20 urterekin Jesusekin bizitzera joan zen, eta berarekin hiru seme izan ditu: Ander, 15 urtekoa; Josu, 13koa eta Mikel, 9koa. Mikelek 3 urte zituenean, kartzelan sartu zuten Pilar, prostituzio- eta droga-arazoengatik, eta kartzelatik sartu-atera pasa ditu 5 urte. Pilarren kartzelaldian zehar semeak harrera-etxe batean egon dira.

Azken urte honetan *garbi* dago, ez du drogarik hartzen, eta prostituzioan ere ez dabil. Helduen Hezkuntzan dabil gradua lortzeko, baina lana ere behar du bere familia-egoera normalizatu nahi badu.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Pilarren enplegarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Pilarri dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

RAFAELEN KASUA

Rafaelek 40 urte ditu, Paraguaikoa da, eta emaztea eta hiru seme-alaba han ditu. Orain Lasarten bizi da; 4 urte daramatza bertan. Asilo politikoa eskatu zuen, eta babesa eman zioten. Bizitza berri bat hasteko etorri zen, aurrerago familia hona ekartzeko asmoa buruan izanik.

Rafael irakaslea da, eta bere herrialdean hurrekin lan egiten zuen. Irakasle-ikasketak eginak ditu, baina hemen ez daude homologatuta. Geriatria-ikasketak egin zituen formazio ez-arautuaren bidez, eta urtebetez amona bat zaintzen egon zen, hura zendu zen arte. Duela urtebete izan zen hori, eta ordutik ez du beste lanik lortu. Diru-laguntzei esker bizi da. Oso pertsona aktiboa da, eta ez da batere eroso sentitzen egoera horrekin.

Rafaelek beti izan du konfiantza bere buruarengan, eta aurrera ateratzeko gaitasuna duela pentsatu izan du. Denborak bere lana egiten du, ordea, eta une honetan nahiko beltz ikusten du etorkizuna. Familiaren hutsunea asko sentitzen du, baina haiek ekartzeko aukera urrun ikusten du.

Une honetan euskara eta informatika ikasten ari da.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Rafaelen enplegagarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Rafaeli dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

RAMIROREN KASUA

Ramirok 49 urte ditu. Emaztearekin eta bi alabarekin bizi da Eibarren. Urte eta erdi darama langabezian.

17 urte arte estudiatu zuen eta batxilergoa egin du. 18-25 urte bitartean, lan egin duen enpresetan jaso du formazioa, kontabilitate-ikastaroak hain zuzen. 32 urte zituela, azken lanpostutik bota egin zuten, informatika-formaziorik ez izateagatik.

Laster, komertzial hasi zen lanean. Aldi bateko lanak izan ziren eta horrela 44 urte zituen arte egon zen. Urte horietan, kontratatu zuten enpresek aholkatuta, salmenta-tekniketako formazioa egin zuen.

45 urtetik aurrera, lan-kontratuak gutxiagotu egin ziren eta lanak ez-egonkorrak izan ziren gainera; haren soldata komisio-truke zen. Azken bi urteetan egoera okertu egin da eta ez du lanik aurkitzen. Hasieran itxaropena zuen arren, denborak aurrera egin ahala motibazioa galtzen joan da eta ez du egoera hobetzerik espero.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

- kolektiboaren ezaugarriak lan-merkatuan deskribatzea
- Ramiroren enplegarritasunaren aldeko eta aurkako faktoreak azaltzea
- Ramirori dagozkion lan-politikak EAEn deskribatzea

18. ERANSKINA

J11. HPB MODULUKOEN KASUAK

ENARAREN KASUA

Enara 5 urteko neskatxa da eta Tolosako Laskorain ikastolan Haur Hezkuntzako 5. maila ikasten ari da. Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako 1. maila ikasten hasiko da.

Enara neska alaia, maitekorra eta oso saiatua da. Asko gustatzen zaio ikastola, eta ikaskideak asko maite ditu. Haiek baino esfortzu handiagoa egin behar izaten du ikasgelako erritmoa jarraitu ahal izateko; izan ere, amak gaixotasun infekzioso larri bat izan zuen haurdunaldian, eta horrek ondorioak eragin zizkion alabari: gorputzaren eskuinaldea kaltetua du, eta alde horretako besoetan eta hanketan mugikortasun mugatua du. Eskuinaldeko entzumena ere kaltetua du; % 35 entzuten du belarri horretatik. Kognizio edo adimen aldetik asko saiatzen den arren, kideek baino erritmo motelagoa du ikasteko prozesua jarraitzeko; mediku-txostenek mugako adimena duela adierazten dute.

Haur Hezkuntzan dabil orain, eta gurasoek 1. mailara egingo duen jautzia prestatu nahi dute. Aholkulariarekin eta tutorearekin adostu dute, atzera bueltarik ez duen edozer neurri hartu aurretik, eskolak Enarari baliabideak eskura jartzea, ikasteko prozesua ahalik eta normalizatuena izan dadin.

Zure eginbeharra hau izango da:

Ikastolako aholkulari gisa, Enararen eskolatzea ahalik eta egokiena izan dadin zer pauso emango dituzuen familiari argi azaltzea.

ENEKOREN KASUA

Eneko 10 urteko mutikoa da, eta Tolosako Hirukide ikastetxean Lehen Hezkuntzako 5. maila ikasten du. Duela urtebete zenbait diagnosi-proba egin zizkioten, gurasoek zein ikastetxeak ohikoak ez diren jokabideak sumatzen baitzituzten: ez da kideekin erlazionatzen, eta, egiten duenean, oso jokabide bitxia edo berezia du. Espazio irekietan izutu egiten da, eta batzuetan bakarrik egon nahi duela nabarmena da, bereziki, jertsearen txanoa janzen duenean. Interesgune oso konkrituak ditu: baserriko gaiak eta zezenak.

Gurasoek, ikastetxeko diziplina anitzeko lantaldearen iradokizunez, neurologoarenera, psikiatrarenera eta, azkenik, Gautenako diagnosi-zerbitzura jo zuten. Esan bezala, diagnosia itxita ez badago ere, seinale guztiek Asperger sindromea izan dezakeela adierazten dute. Erreferentzia-gelan jarrai dezan, Enekorri hainbat bitarteko jarri dizkiote eskura.

Zure eginbeharra hau izango da:

Enekoren eskolatzeari nolakoa izango den deskribatzea, orain arte landutako eduki guztiak eta Berritzegunetik jasotako informazioa kontuan izanik.

LAYLAREN ETA AMINAREN KASUA

Layla eta Amina 5 eta 7 urteko ahizpak dira. Duela sei hilabete, familiaren berrelkartzeari esker, Marokotik iritsi ziren. Aitak arrantza-sektorean lan egiten du eta ama etxeke lanez arduratzen da. Familia xumea da, eta udaleko gizarte-zerbitzuen laguntzaren bidez bitzta duina eraman dezakete. Aitak hilabeteak igarotzen ditu itsasoan, eta ama da alaben heziketaz gehien arduratzen dena.

Layla eta Amina Marokoko hezkuntza-sisteman eskolatuta bazeuden ere, gurasoek ez dute informaziorik. Hori dela eta, zure ikastetxeak hasieratik bi ahizpen eskolatzea ondo bideratu nahi du. Ikastetxeko aholkularia zarenez, ama bilera batera deitu duzu.

Ahizpen tutoreek eta zuk prestatu duzue bilera. Amak zalantzarik izan ez dezan, bilera-gidoi txukun bat prestatu duzue eskolatzea nolakoa izango den azaltzeko. Amak jarrera ona agertzen badu ere, alaben integrazioarekin kezkatuta dago eta bereziki, hizkuntzarekin; gaztelaniaz ikastea lehenesten du, euskara alaben eskolatzerako mehatxutzat hartzen baitu. Ikastetxearen hizkuntza euskara izanik, ondo azaldu nahi diozue egokitzapen hori nola egingo den.

Zuen eginbeharrak hauek izango dira:

1. zeuen burua zuen funtzioetan oinarrituta aurkeztea
2. hezkuntza-sistemak alaben beharrei aurre egiteko aukera eskaintzen duela adieraztea; horretarako, inklusioaren printzipioak eta beharrak aztertuko dituzue
3. ahizpen eskolatzearen ibilbidea zehatz-mehatz azaltzea. Ulertzeko zailtasunak izan ditzakeenez, ibilbide hori eskema edo grafiko baten bitartez ere adieraziko diozue.
4. ahizpekin lan egingo duten profesionalak eta haien funtzioak aipatzea, baita eskolan integratzeko zer-nolako baliabideak eskainiko zaizkien ere
5. harekin elkarlanean arituko zaretela azaltzea

NAHIAREN KASUA

Nahia 8 urteko neskatila da. Duela hilabete batzuk, meningitisak eragindako infekzio baten ondorioz, sukar handia izan zuen eta ospitaleratu egin zuten. Gaixotasuna gainditu bazuen ere, egunerokotasunean eragiten dioten ondorio hauek geratu zaizkio: belarri bateko entzumena erabat galdu du eta bestearekin zerbait entzuten badu ere, galera oso handia izan da. Gaixotasunaren ondorioz, kokleako inplantea jarri diote eta jarraipena egiten dioten medikuek adierazi dutenez, inplantearekin moldatzeko egokitzapen-prozesua beharko du. Egokitzapen hori bizitzaren esparruetan egin beharko du, besteak beste, eskolan.

Tutorea zara, eta gurasoekin bilera egin nahi duzu. Nahiaren egoera berriak aldaketak ekarriko ditu eskolatzean; zer pauso eman behar diren, eta zer-nolako baliabideak izango dituen nahiko garbi duzu. Dagoeneko zure lankideekin eta Berritzegunearekin hitz egin duzu. Hala ere, gurasoen baimena lortzeko, ondo esplikatu nahi diezu zer aukera, behar, etab. izango dituen alabak, eta ikastetxeak behar horiei erantzuteko zer-nolako baliabideak eskainiko dizkion. Gidoi bat prestatu duzu komentatu nahi dizkiezun puntuak biltzeko.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

1. hezkuntza-sistemak, alabaren beharrei erantzuteko, oinarri dituen printzipioen arabera jokatzeko duela adieraztea
2. hezkuntzaren esku-hartzea egokia izateko, eta Nahiak beharko dituen laguntzak zehazteko, dituen hezkuntza-beharrak, pedagogia-diagnosiaren bidez, xehetasunez aztertuko dituzuela adieraztea. Bestalde, zer profesional izan ditzaketen eskura adieraziko diezu, baita nolakoa izango den haiekiko elkarlana ere.
3. gurasoei gehien kezkatzen dituen gaia jorratzea: alabak oraindainoko ikastalde berean jarraituko duen ala ez

NATXOREN KASUA

Natxo 11 urteko mutila da. Bost urte daramatza Nuevo Futuro erakundeak duen harrera-etxe batean bizitzen, eta haren legezko tutorea Yolanda da.

Herriko eskola publikoaren zuzendaria zara, eta ekainean udaletxetik bilera bat egiteko deialdia jaso zenuen. Bilera horretan Yolandarekin eta Berritzeguneko arduradun batekin bildu zinen, Natxo zure ikastetxean eskolatzeko aukerak aztertzeko.

Natxo mutil bizkorra eta osasuntsua bada ere, bizitzak jarri dizkion oztopoak direla eta, zailtasunak ditu ikastetxearen eskakizunetara egokitzeko. Dagoeneko hiru ikastetxetatik kanporatua izan da jokabide disruptiboak izateagatik. Azken bolada honetan jokabide oldarkorra eta bortitza izatera ere iritsi da; ez zaio inolako azterketa berezirik egin, ordea.

Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako 6. maila hasi beharko luke, baina, beste ikastetxeetako txostenak aztertu ondoren, ez duzu garbi curriculum-helburuak landuta ote dituen.

Iraila iritsi da, eta klaustroari egoeraren berri eman behar diozu. Bide batez, denen artean Natxorentzat irtenbide egokiena aurkitu nahi duzu.

Zure eginbeharrak hauek izango dira:

1. Natxok arazo fisiko edo intelektualik ez badu ere, laguntza jasotzeko ikaslea dela garbi uzteko, argudioa legean eta inklusioaren printzipioetan oinarritzea
2. Berritzeguneak eskainiko dizuen laguntza nabarmentzea.
3. Natxorekin harreman zuzena izango duten irakasleak eta horien profilak zehaztea, klaustroak ekipoan lan egingo duzuela ikus dezan
4. zer gelatan eskolatuko duzuen zehaztuta eramatea

XANETEN KASUA

Xanetek 6 urte ditu. Ahizpa txikiarekin eta aitarekin bizi da hiriburuan. Xanet haur alaia, bizkorra eta mugitua da. Datorren ikasturtean Lehen Hezkuntzako 2. maila egingo du, eta tutore zaren aldetik, bilera bat egin duzu aitarekin gai zehatz bat mahairatzeko.

Bileran, Xaneti PROLEC⁷ testa pasa zaiola adierazi diozu, eta bertan hainbat fonema eta hitz aldatzeko joera duela detektatu zaiola, esaterako: «b/p» eta «gizona/ginoza». Dislexia izan daitekeen susmoa duzu; hori entzundakoan, aita oso urduri jarri da. Lasaitzeko asmoz, aitari eskatu diozu kezkatzen duena idatziz jartzeko, zuk erantzun ahal izateko. Datorren asterako gelditu zarete berriz, eta ordurako erantzunak prestaturik izango dituzu.

Hauek dira Xaneten aitaren galderak:

1. Semea ume berezi horietakoa al da? Zer dira, zehatz-mehatz, ume berezi horiek? Hezkuntza-sistema behar horiei erantzuteko prestaturik al dago?
2. Beste probarik egingo al zaio? Zertjarako? Nork egingo ditu proba horiek?
3. Berezien gelara pasako al da?
4. Zer laguntza izango ditu?
5. Nor arduratuko da semeaz ikastetxean?
6. Errepikatu egin behar al du?
7. Zer egin dezaket nik?

⁷ Irakurketaren ulermena ebaluatzeko testa da.